

AKORDIO JAKINARAZPENA

Udal Tokiko Gobernu Batzarrek 2026ko otsailaren 5ean egindako bileran, besteak beste, ondorengo erabakia hartu zuen:

“7.3.- Nekazaritza ustialekuak modernizatzeko 2025eko dirulaguntza deialdiaren ebazpen proposamena (2025ZDK00023)

Alkatearen 2026ko otsailaren 4ko proposamenak honela dio:

“ Aitor Gerenabarrena jaunak (Udal Nekazaritza-auzoak eta Ingurumen teknikariak eta batzordeko idazkariak) otsailaren 3an egindako agirian (CSV zkia: ESKU48c13a76-1ce3-4f43-88d9-a7f19927ded2) urtarrilaren 24an Landa Garapen Batzordeak honako proposamena egin zuela:

Xedea:

Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 24.1 artikulua xedatutakoari jarraituta, dirulaguntza deialdiaren instruktoea den Aitor Gerenabarrena Osa jaunak egindako txostena aztertu ondoren, dirulaguntza deialdiaren emakida- edo esleipen-proposamena egitea.

Araudi aplikagarria:

2025eko martxoaren 27an Udal Osoko Bilkurak egindako bileran, Landa Garapen Departamenduak kudeatzen dituen programaren kontura emango diren diru-laguntzen oinarri arautzaileak eta 2025eko deialdia onartu zituen (2025/04/25eko GAOn). Onartutako laguntza lerro horien artean, nekazaritza ustialekuak modernizatzeko diru-laguntzak emateko oinarri-arau espezifikoak daude.

Jaso diren eskaerak:

Deialdiak xedatutako epe-mugaren baitan (abendua 31) honako eskaerak jaso dira:

sarrera zk.	ustialekua izendapena	eskatzailea	gastuaren deskribapena
6028	ES200590070056	Estenaga baserria	Desensiladora Triolet TU170
3462	ES200590040106	Iruatz baserria	Tractor mccormick x5-85
6785	ES200590080718	Errekalde baserria	Ganadu kontrola (Nofence ES) Arri herramientak
6374	ES200590080011	Irazabal-Txiki baserria	Tractor agricola Case IH, Maxxum 140 (ZEBE56423) Carretilla anova orugas 7 HP 320 kg
5843	ES200590090138	Zulatza baserria	Lanabesak gordetzeko txabolaren teilatua eraberritzea

ESKU32b50ed0-4431-4790-8c80-88673f44d9d5

sarrera zk.	ustialekua izendapena	eskatzailea	gastuaren deskribapena
6821	ES200590070120	Arretxe baserria	Ukuilua handitzeko ingeniariaren ordainagiria Ukuilua handitzeko lanak 1º fasea Ukuilua barruko banaketa instalakuntzak
6372	ES200590130198	Azkarraga-Txiki baserria	Barra de siega BFT 150 H Enorossi

Araudi orokorra:

- 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, Diru-laguntzei buruzkoa.
- 887/2006 Errege Dekretua, uztailaren 21ekoa, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren Erregelamendua onartzen duena.
- Oñatiko Udalak emandako dirulaguntzak kudeatzeko ordenantza orokorra (OB 2009/01/29)

Gertakarien balorazioa:

Oinarri arautzaileen 6. artikulua "diru-laguntzak emateko prozedura" xedatukoaren arabera, Landa Garapen batzordearen eginkizuna da Udal Tokiko Gobernu Batzarrari emakida- edo esleipen-proposamena ematea, instrukzio organoak egiten duen izapidetzearen bidez. Izapidetze fasea hasiko da jaso diren eskaeren aurre ebaluazioaz, hain zuzen, onuradun baldintzak eta aurkeztutako dokumentazioa egiaztatzearekin bat.

Nekazaritza ustialekuak modernizatzeko oinarri-arau espezifikoaren 1.2., 1.3. eta 1.4. ataletan onuradunen baldintzak zein ustialekuak bete beharreko baldintzak jasotzen dira.

sarrera zk.	ustialekua izendapena	NELU/UTA*	R.Unit./R.Ref > %5	eskatzailea
6028	ES200590070056	2,941	67,08	Estenaga baserria
3462	ES200590040106	1,465	15,86	Iruatz baserria
6785	ES200590080718	1,398	46,81	Errekalde baserria
6374	ES200590080011	0,516	20,30	Irazabal-Txiki baserria
5843	ES200590090138	0,455	18,83	Zulatza baserria
6821	ES200590070120	0,411	20,10	Arretxe baserria
6372	ES200590130198	0,086	1,65	Azkarraga-Txiki baserria

*.nekazaritza eta abeltzaintza jardueretako NELUak (1.4.4)

Aurkeztutako eskaera guztiek aipatu baldintzak betetzen dituzte hiru eskaera izan ezik: ES200590090138 (Zulatza baserria), ES200590070120 (Arretxe baserria) eta ES200590130198 (Azkarraga-Txiki baserria) ustialekuak 0,5 NELU azpitik daude eta. Hala ere, 1.4 artikulua honakoa jasotzen du: 0,5 NELUtik beherako ustiategiek dirulaguntza jasotzeko aukera izango dutela honako kasuetan:

1. Baserrian bertan kokatzen den abeltzaintza-ustialeku baten aurrean, eraikin berriak baserritik kanpo egiten badira higie-ne osasun arrazoiengatik. Kasu horietan, GFAko Nekazaritzako eta Lurralde Oreka sailaren oniritzia aurkeztu beharko da, obra lizentziarekin batera.

2. Bideragarritasun-plan bat aurkeztu denean, kudeaketazentro batek abalatua, 6 urteren buruan 0,5 euroko NELU lortzea aurreikusten duena.

Arretxe baserriko ustiategia eraikitze-ko obra baimena 2017/07/28ko AD bidez eman zen, gerora, 2025/06/12ko (1092 zk) AD bidez handitze-ko baimena izan duena. Ukuilua eraikitze-ko arrazoa izan zen baserri barrutik hazienda kanpora ateratzea. Hortaz, nahiz eta 0,5 NELU azpitik egon, diru-atala agortuko ez balitz, laguntza jasotze-ko baldintzak betetzen ditu (1.4.4.1 atala).

2025eko deialdirako 22.000 €-ko diru-atala (1 1104.481.410.00.21 2025 "5675") dago.

1.7. atalak "diru-laguntzen zenbatekoa" xedatutakoaren arabera, eskaerak aztertu ondoren, hau da diru-laguntza proposamena:

ustialekua izendapena	gastuaren deskribapena	gastu justu BEZa gabe	%	laguntza €-tan	< 40	J. izen.	laguntza €-tan	Propo. 4000 max.
ES200590070056	Desensiladora Triolet TU170	14.581,00	30	4.374,30	-	-	4.374,30	4.000,00
ES200590040106	Tractor mccormick x5-85	34.527,85	20	6.905,57	-	-	6.905,57	4.000,00
ES200590080718	Ganadu kontrola (Nofence)	2.252,00	25	563,00	-	-	788,20	563,00
ES200590080718	Arri gastuak	1.469,90	0	0	-	-	-	0,00
ES200590080718 / Guztira								563,00
Guztira, >1 NELU								8.563,00

* Ekologikoan aritzeagatik %20 handitzen da laguntza. 40 urtetik beherako nekazaria izateagatik %20 handitzen da laguntza. ** Eskaera batek gehienez 4.000 €-ko diru-laguntza jaso ahal izango du (1.8)

1.4 artikulua xedatutakoari jarraituta, "behin eskaera guztiak aztertuta, diru-atala agortuko ez balitz, diru-laguntza jasotze-ko aukera izango dute 0,5 NELUtik gora duten ustiategiak". Kontuan izanda, eskaera guztiak aztertuta 8.563,00 €-ko laguntzak ematen direla eta diru-atalak 22.700 €-koa dela, NELU bat azpitik eta 0,5 NELUtik gora dauden eskaerak laguntze-ko beste diru badago.

ustialekua izendapena	gastuaren deskribapena	gastu justu BEZa gabe	%	laguntza €-tan	< 40	J. izen	laguntza €-tan	Propo. 4000 max.
ES200590080011	tractor agricola Case IH, Maxxum 140 (ZEBE56423)	33.000,00	10	3.300,00			3.300,00	3.300,00

ESKU32b50ed0-4431-4790-8c80-88673f44d9d5

ustialekua izendapena	gastuaren deskribapena	gastu justu BEZa gabe	%	laguntza €-tan	< 40	J. izen	laguntza €-tan	Propo. 4000 max.
ES200590080011	carretilla anova orugas 7 HP 320 kg	0,00					0,00	0,00
				ES200590080011/ Guztira				3.300,00
				Guztira, 0,5-1 NELU				3.300,00

1.4 artikulua xedatutakoari jarraituta, “*behin eskaera guztiak aztertuta, diru-atala agortuko ez balitz, diru-laguntza jasotzeko aukera izango dute 0,5 NELUtik azpitik duten ustiategiak*” xedatutako kasuetan. Kontuan izanda, eskaera guztiak aztertuta 11.863,00 €-ko laguntzak ematen direla eta diru-atalak 22.700 €-koa dela, 0,5 NELUtik azpitik dauden eskaerak laguntzeko beste diru badago.

ustialekua izendapena	gastuaren deskribapena	gastu justu BEZa gabe	%	laguntza €-tan	< 40	J. izen.	laguntza €-tan	Propo. 4000 max.
ES200590070120	ukuilua handitzeko proiektuaren ordaina	1.840,00	25	460,00	-	-	460,00	
ES200590070120	ukuilua handitzeko lanak 1º fasea	29.253,00	25	7.313,25	-	-	7.313,25	
ES200590070120	ukuilua barruko banaketa instalakuntzak	4.166,00	15	624,90	-	-	624,90	
				ES200590080011/ Guztira				4.000,00
				Guztira, 0,5-1 NELU				4.000,00

Gaia aztertu ondoren eta azaroaren 17ko 38/2003 zkidun Dirulaguntza Lege Orokorreko 24,4 artikulua arabera eta Landa Garapen batzordeak egidako proposamena kontuan hartuz, honako hau proposatzen diot Tokiko Gobernu Batzordeari:

Proposamena:

Lehenengoa.- Oinarri arautzaileen 6. artikulua “diru-laguntzak emateko prozedura” xedatutako arabera, Udal Tokiko Gobernu Batzarrari eskatzea ondorengo emakida- edo esleipen-proposamena onar dezala, nekazaritza ustialekuak modernizatzeko 2025eko dirulaguntza deialdiaren baitan, 1 1104.481.410.00.21 2025 (5675 zk) diru atala:

sarrera zk.	ustialekua izendapena	eskatzailea	Laguntza
6028	ES200590070056	Iñaki Aiastuin Arriaran	4.000,00 €
3462	ES200590040106	Ignacio Cortabarria Guridi	4.000,00 €
6785	ES200590080718	Galder Azkue Eizmendi	563,00 €
6374	ES200590080011	Mª Pilar Arregui Murua	3.300,00 €

6821	ES200590070120	Miguel Angel Biain Kortabarria	4.000,00 €
guztira			15.863,00 €

Bigarrenena.- Oinarri arautzaileek xedatutako baldintzak ez betetzeagatik, ondorengo eskaerei dirulaguntzarik ez ematea:

sarrera zk.	ustialekua izendapena	eskatzailea	Laguntza
5843	ES200590090138	Iñaki Altuna Madina	0,00 €
6372	ES200590130198	Vicente Inza Peralta	0,00 €

Hirugarrena.- Diru laguntza hau Diru-laguntzen Datu Base Nazionalean (DNS) argitaratzea.

Laugarrena. Abenduaren 9ko 19/2013ko Gardentasun Legeko 5.4 artikuluaaren arabera dirulaguntza hau argitara ematea Oñatiko Udaleko web orriko gardetasun atarian

Bosgarrena.- Erabaki hau interesdunari eta kontuhartzailetza Sailari jakinaraztea, dagozkion ondorioak izan ditzan".

Gaia aztertuta eta gastuari dagokionez kontu-hartzailearen oniritziarekin, Tokiko gobernu batzarrak aurreko proposamena onartzea erabaki du aho batez"

Jakin dezazun eta behar diren ondorioetarako adierazten dizut hori, Oñatin, sinadura digitalean ageri den datan.

ESKU32b50ed0-4431-4790-8c80-88673f44d9d5